

Eranskinak

1.go eranskina

HIRUELEDUN PROGRAMARI BURUZKO INKESTA: ESKOLAKO IKASLEENTZAT

Ikaslearen adina: **Sexua:** Emakumezkoa / Gizonezkoa

Maila:..... **Data:** **Jaioterria:**

1. Zein adinarekin hasi zinen eskolan ingelesa ikasten?
2. Zenbat ordu ematen dituzu eskolatik kanpo ingelesa ikasten?
3. Zenbat ordu ematen dituzu eskolatik kanpo euskara ikasten?
4. Akademiaren batera joaten zara? Edo badaukazu laguntza eskolatik kanpo?
Zerekin?
5. Etorkizunari begira, ideia ona iruditzen al zaizu ingelesa ikastea? Zergatik?
6. Erakargarria iruditzen zaizu ingeleseko ikasgaia? Gustatzen zaizu?
Zergatik?
7. Zaila iruditzen zaizu ingeleseko ikasgaia? Zergatik?
8. Eta ingelesez lantzen dituzun beste ikasgaiak? Zergatik?
9. Zailagoak dira beste ikasgaiak ingelesez ematen direnean, gai horiek euskaraz edo gaztelaniaz ematen direnean baino?
10. Zein da gehien gustatzen zaizun ikasgaia (ingelesez ikasten duzuna)?
Zergatik?
11. Hori zailagoa izango litzateke euskaraz emanaz gero? Edo gehiago gustatuko litzaizuke?
12. Beste ikasgairen bat hartuko zenuke ingelesez? Zein?
13. Klasean ingelesez ikasten edo lan egiten duzunean, zein da gehien gustatzen zaizun teknika, jolasa, jarduera edo baliabidea? Zergatik?
14. Zure gurasoek laguntzen dizute etxerako lanekin zailtasunak dituzunean?

Gurasoek badakite euskaraz hitz egiten? Eta ingelesez?

15. Ingeleseko irakasleak saio dibertigarriak antolatzen ditu? Gustatzen zaizkizu bere klaseak?

16. Pozik zaude ikasgai horiek guztiak ingelesez ikastearekin? Zer aldatuko zenuke?

17. Zein nota jarriko zenioke 1etik 10era zure eskolako hirueledun proiektuari?

2. eranskina

HIRUELEDUN PROGRAMARI BURUZKO INKESTA: IKASLEEN GURASOENTZAT

Zure adina: **Jaioterria:** **Sexua:** Emakumezkoa / Gizonezkoa

Zure seme-alabaren ikasmila (kurtsoa):

1. Zein da zuen ama-hizkuntza (etxean erabiltzen duzuenena)? (Bi gurasoen erantzuna)

2. Horretaz aparte, beste hizkuntzaren bat menperatzen duzue? (Bi gurasoen erantzuna)

3. Badakizu zer den hirueledun programa/eredua? Zer da bereziki diferentea programa horretan?

4. Zer iruditzen zaizu eskolak eskaintzen duen hirueledun programa/eredua?

5. Zure seme alabak hirueledun ereduan ikasten du. Hala ikasterakoan zailtasunak dituela esango zenuke? Zeintzuk?

6. Zure seme-alabarentzat onuragarria dela esango zenuke? Zergatik?

7. Zure seme-alaba motibatuta dago? Gustatzen zaio atzerriko hizkuntza batean ikastea? Proiektu horretan pozago dago ingelesarekin?

8. Zure seme-alabak laguntza eskatzen dizu etxerako lanekin edo klaseko gauzeekin? Zerekin? Zer laguntza mota?

9. Zure seme-alabari zer gustatzen zaio gehiago, euskaraz ala ingelesez ikastea? Zergatik izango ote da zure ustez?

10. Hirueledun ereduan ari denez geroztik zure seme-alabaren ingeles maila hobetu egin dela esango zenuke? Eta euskara maila?

11. Nolakoa da zure harremana eskolako irakasleekin? Zure seme-alabaren ikas- prozesuari buruz hitz egiteko elkartu/elkartzen zarete? Zenbat alditan? Proiektu hirueledunaren gaiaz hitz egiten duzue?

12a) Klasean, ingelesez ikasten, ordu nahiko ematen dituztela uste duzu? Gehiegi? Gutxiegi? Zergatik?

12b) Eta euskaraz nahiko ematen dituzte? Gehiegi? Gutxiegi? Zergatik?

12c) Eta gaztelaniaz nahiko ematen dituzte? Gehiegi? Gutxiegi? Zergatik?

13a) Zure seme-alabak etxerako lanekin (ingelesez) laguntza behar duenean, laguntza eskaintzeko gai zara? Haren beharrizanei erantzuteko gai zarela esango zenuke? Zergatik?

13b) Eta euskararekin laguntza behar duenean? Laguntza eskaintzeko gai zara? Haren beharrizanei erantzuteko gai zarela esango zenuke? Zergatik?

13c) Eta gaztelaniarekin laguntza behar duenean? Laguntza eskaintzeko gai zara? Haren beharrizanei erantzuteko gai zarela esango zenuke? Zergatik?

14. Eskolatik kanpo, zure seme-alaba akademiaren batera joaten da? Zer egiten/ikasten du bertan?

15. Etorkizunari begira, zure seme-alabarentzat, proiektu hirueleduna baliagarria dela esango zenuke? Zergatik?

16. Hurrengo urteotan, Bigarren Hezkuntzan adibidez, hirueledun programa batean sartuko zenuke berriro zure seme-alaba? Zergatik?

17. Gustatuko litzaizuke hirueledun programari buruzko orientabide hitzaldiren bat izatea eskolan? Zeintzuk dira zure zalantzak horri buruz?

18. Zein gomendio emango zenizkioke eskolari/eskolako zuzendaritzari hirueledun programa eta ikasleen ikaskuntza-prozesua hobetzeko?

19. Eskolako proiektu honi, zein hobekuntza egingo zenizkioke?

20. Hirueledun programarekin lehenago hasi beharko liratekeela uste duzu? Zein mailatan? Zergatik?

3. eranskina

HIRUELEDUN PROGRAMARI BURUZKO INKESTA: ESKOLAKO IRAKASLEENTZAT

1. Irakasle moduan zailtasunak nabaritzen dituzue proiektu hirueledunean klaseak aurrera eramateko orduan? Zergatik?

2. Nolakoa da ikasleen egunerokotasuna klasean? Ohitu dira hirueledun proiektuari? Izan ere, 2. Ziklotik heltzerakoan metodologia guztiz desberdinean murgiltzen dira. Zailtasun handiak izaten dituzte? Zertan izaten dituzte zailtasunak bereziki?

3. Proiektua bakarrik ingeleseko irakasleek eramaten dute aurrera? Nolakoa da beste irakasleen inplikazioa?

4. Badago koordinaziorik beste gaietako irakasleekin?

5. Badago koordinaziorik hizkuntzez (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesaz) bereziki arduratzen diren irakasleen artean?

6. Irakasle taldearen artean adostasuna dago proiektu honekin?

7. Taldeen tutoreek atsegin dute proiektua?

8. Zein da zuzendaritza taldearen jarrera proiektuarekiko?

9. Eta ikasleen familien jarrera?

10. Proiektu hirueledunean parte hartzen duten irakasleen ingeles maila nahiko/oso ona izan ohi da. Zuen kasuan zer titulazio eskatzen da proiektuan parte hartu ahal izateko? Zehazki, zer titulazio duzue gaur egungo irakasleok?

11. Zer-nolako motibazioa daukazue proiektuarekin? Hasierako ideiak mantendu dituzue?

12. Proiektua zergatik lantzen da bakarrik hirugarren zikloan eta laugarren mailan?

13. Zein irakasgai lantzen dituzue atzerriko hizkuntzan? Maila guztietan, ahalik eta xehetasun handienarekin.

14. Zein baliabide erabiltzen dituzue saioak aurrera eramateko? (klaseko materiala...)CLIL ez diren taldeetan desberdinak dira? Guztiz berdinak dira? Badago zerbait diferentea? Zer?

15. Nolakoa da ebaluaketa sistema? Zer hartzen duzue kontuan edo zeintzuk dira zuen ebaluazio irizpideak? Zer trebetasunak ebaluatzen dituzue (entzumena, mintzamina, irakurmena, idazmena? Badago zerbait berezia proiektu hirueledunarekin sartu dena edo harekin batean hasi dena?

16. Nolakoa da, zure ustez, ikasleen hizkuntza maila? (Oso ona, ona, aproposa, baxua...) Zergatik edo zertan oinarritzen zara hori esateko/ondorioztatzeko?

17. Ikasleek interesa adierazten dute ingelesez ikasterakoan? Proiektu honetan aritzeak interesa handitu die?

18. Orokorrean, proiektuarekin hasi zinenetik, ikasleen ingeles maila (amaierakoa)hobetu dela esango zenuke? Zenbateraino gertatu da hori?

(Batere ez= 1, Gutxi= 2, Zerbait= 3, Asko= 4, Izugarri= 5).

19. Nola hobetuko zenuke proiektu hau? Zer aldatuko zenuke?

20. Azkenik, zein aholku emango zenizkieke proiektu honekin hasiko diren irakasleei?

4. eranskina

HIRUELEDUN PROGRAMARI BURUZKO INKESTA: ESKOLAKO ZUZENDARITZA TALDEARENTZAT

1. Noiz hasi zineten hirueledun proiektuarekin?
2. Nola hasi zineten proiektuarekin? Eskolaren erabaki propioa izan zen edo behartu zintuzteten?
3. Zein ziklotan lantzen da? Zergatik?
4. Aurreko zikloetan lantzen hastea pentsatu duzue? Zergatik?
5. Zenbat irakaslek hartzen dute parte proiektuan?
6. Zure ustez programa eleanizdunean sartzeak aldaketa positiborik ekarri du maila pedagogikoan? (ikaskomunitateko kideen ilusioan -guraso, irakasle, zuzendaritza-, irakasleen irakas-moduak aldatzea/berritzea, jarduera erakargarriagoak egitea, IKTen erabilera ugariagoa, ikasleen parte hartze aktiboagoa...)
7. Nolako harrera izan zuen proiektuak eskolan?
8. Irakasleek adostasuna adierazi zuten? Zer nolako iritzia zeukaten?
9. Familien partetik nolakoa izan zen jarrera? Adostasuna zegoen? Parte hartzen zuten?
10. Zein zailtasuni egin behar izan zenieten aurre?
11. Ikasleei asko kostatu zitzaien proiektura ohitzea? Nolakoa izan zen haien jarrera?
12. Urteak pasa ahala proiektua hobetu dela esango zenukete? Zergatik edo/eta zein aspektutan?
13. Ikasleen ingeles maila hobetu dela esango zenukete? Sumatu duzue hobekuntzarik gaztelania mailan? Euskara mailan?

14. Hori kontuan hartuz, hirueledun programarekin lehenago hasiko balira, emaitzak hobeak izango liratekeela uste duzue? Zergatik?

15. Ikastetxe mailan, zein hizkuntza maila daukazuela esango zenukete? (Bai ingelesez, baita euskaraz ere). Oso ona; ona; nahikoa; nahiko apala; oso apala

16. Hori kontuan hartuz, hizkuntzak sendotzeko beharra ikusten duzue?

17. Etorkizunari begira, proiektuan lantzen diren helburu, eduki eta baliabideekin, ikasleek motibazio nahikoa izango dute atzerriko hizkuntza bat ikasten jarraitzeko?

18. Beste eskola publiko batzuen hirueledun proiektuak ezagutzen dituzue? Baduzue harremanik proiektu hori dutenekin?

19. BERRITZEGUNEtik zer laguntza hartzen duzue? Zer harreman duzue zerbitzu horrekin programa hirueleduna dela eta?

20. Zein hobekuntza gustatuko litzaizueke egitea proiektu honetan?

21. Baloratu 1etik 10era eskolako ikasleen eta irakasleen hizkuntza maila (ingelesean eta euskaran).

- Ingelesean:

- Euskaran: